



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

mugikortasuna mobilité

Nola ekarri gure mugitzeko modua klima-desafioen mailara? Garapen Kontseiluak gizarte zibileko eragileak lanean ariarazi ditu, haien begiraden partekatzeko eta proposamen zehatzen egiteko, Hiriko joan-jinen plana eraiki aitzin. Hemen aurkituko duzue lanen sintesia, begi itxi-ireki batean = *So!*

DIAGNOSTIKOA

- ▶ **"Autoaren nagusitasunaren" kultura:** kilometro bat baino guttiagoko ibilbideen 1/3 (3 km baino guttiagokoen % 50, bizikleta joan-jinen % 1 baino guttiagotan erabiltzen da).
- ▶ **Hirigintza eta azpiegitura desegokiak:** bizileku/lan ibilbideak, garraio publiko eta modu alternatibo eskasak.
- ▶ **Aitzinamenduak eskaintza publikoaren alorrean:** Txik Txak sareak behakoak bereganatzen ditu.

DESAFIOAK

Errotik aldatu beharreko usadio eta praktikak!

- ▶ **Autoak** hiriguneetan **duen lekua** murriztu.
- ▶ **Eskaintzen andana** eta beste modu batez mugitzeko aukera **zabald**u.
- ▶ Haien artikulazioa zaindu: **intermodalitatea!**
- ▶ **Sentsibilizazio orokorra:** enplegatzaileak, biztanleak, gazteak, ikastetxe publikoak...



GURE PROPOSAMENAK

Nolako eskaintzak?

- ▶ Autozerbitzuko bizikleta sare aberatsa eta **horretara eskaini bide seguruak**.
- ▶ Euskal Herriko **barnealdera** joaten diren Chronoplus lineak eta hirien arteko **express autobusak**.
- ▶ **Autokidetzari** eskaini errepideak.
- ▶ **Auto elektriko** kolektiboen sarea herrietan.

Nolako azpiegiturak?

- ▶ Hierarkia berria bideetan: 1. oinezkoak 2. bizikletariak 3. Garraio publikoak 4. Autoa
- ▶ Herri politika harmonizatuak: oinezko hiriguneak + autoentzako aparkaleku oso mugatuak.
- ▶ Lau trenbide ardatzen garatzea: "RER" logika + bizilekuak/enpresak + garraio eskaintzak
- ▶ Hub mugikortasun" sarea, lurralde osoan: garraio modu batetik bestera pasatzeko aparkalekuak/geltokiak, bizikletak, autobusak, autokidetzak.

Zer kultura?

- ▶ **Praktikaren bidez sentsibilizatzea**, komunikazio-kanpainak, bizikletan trebatzeko ekintzak, haur denboratik haste.
- ▶ Auzoen, sektoreen/hurbileko bizi-eremuen arabera **joan-jin planak, herritarren parte hartzearekin eraikiak**, tokiko berrikuntzen laguntzea.
- ▶ **Jarduera sektoreen arabera pentsatu mugikortasun planak** (langileak, salgaiak...).
- ▶ **Gizarte zibila** partaide, Hiriko Mugikortasun Planaren hobetzeko, urtez urte.





CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.

Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.

Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laborategia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.